

2. GATAZKA MINERALAK (3-7 ARGAZKIAK)

Begiratu argazkiak eta saiatu zaitez deskribapen bat egiten. Zer ikusten duzu? Nolakoa da lekua? Ze ezaugarri ditu? Zer egiten ari dira argazkian ikusten ditugun pertsonak?

Ba al dakizue meatz horien eta gure artean lotura zuzen bat dagoela? Gure mugikorrak. Esnea behi batetik datorrela badakigu, baina nondik dator mugikor bat? Zein materialez osatuta dago? Nondik dator material hori?

Rubayako meatza eta meatzarien aurrean zaude. Bertan koltana dago, lur azpitik lortzen den mineral bat. Hau, mineral beltz eta opakoa da, kolunbita eta tantalioz osatua dagoena, proportzio desberdinetan. Koltana oso mineral urria da ingurumenean, eta interes gutxi sortzetik gure egunerokotasunean ezinbestekoa izatera pasa da, gailu teknologikoetarako beharrezko osagai baita. Kongoko Errepublika Demokratikoa, batez ere herrialdearen ekialdea, munduko meatzaritza-gune garrantzitsuenetarikoa bat da. Han omen dago koltanaren munduko erreserben % 80a; mineral hori gabe, ezinezkoa izango litzateke teknologia berrien iraultza, bereziki mugikorraren teknologia. Litekeena da zuetako askok momentu honetan zuen poltsiko ala motxiletan Kongoko zati bat eramatea.



2. GATAZKA MINERALAK (3-7 ARGAZKIAK)

Koltanaz gain, aipagarriak dira, batez ere, funtsezko zereginak betetzen dituzten beste hiru mineral: urrea, wolframioa eta eztainua (3T+G-ak esaten zaie, ingelesezko siglekin). Mineral horiek urriak eta garestiak dira, eta “gatazka-iturri diren mineralak” edo, are gordinago, “odolezko mineralak” deitzen zaie, gatazka, gehiegikeria eta giza eskubideen urraketaekin lotura zuzena duten mineralak direlako.



Tantalioa kondentsadore elektronikoak egiteko erabiltzen da gehien bat. Alumiokoaren aldean, abantaila nagusia dute tantaliozkoek: karga handiagoa meta dezakete, askoz txikiagoak izan arren. Horregatik dira hain garrantzitsuak tamaina txikiko gailuen fabrikazioan (mugikorrak, ordenagailu eramangarriak, tabletak...). **Eztainua**, berriz, beste metal batzuekin aleazioak egiteko erabiltzen da, haiek korrosiotik babesteko. Latorria egiteko prozesuan, adibidez, altzairua estaltzeko erabiltzen da. Soldadura bigunerako erabiltzen da (tamaina txikiko piezak elkarrekin lotzeko) gailu mugikorretan, ordenagailuetan, autoetan eta, oro har, zirkuitu elektroniko inprimatuetan eta transistoreetan. **Wolframio edo tungstenoa**, zulaketak egiteko eta ebaketa-tresnetarako erabiltzen da gehienbat, gogortasun eta dentsitate handiko minerala baita. Mineral estrategikoa da: batetik, urria delako; eta bestetik, aplikazio ugari dituelako. Honako hauek egiteko erabiltzen da gehienbat: goritasun-lanparak, erresistentzia elektrikoak, altzairu aleazioak, ebaketa-tresnetarako aleazioak, automobiletarako bujiak eta boligrafoak. Ezin da ahaztu arma-industrian ere erabiltzen dela. Laburbilduz, wolframioak ahalbidetzen du mugikorrak bibratzea, eztainua zirkuitoak soldatzeko balio



2. GATAZKA MINERALAK (3-7 ARGAZKIAK)

du, eta tantalioak elektrizitatea metatzen du. Azkenik, urreak kableatuak esaltzen ditu.

“Kongon koltana ustiatzen den moduak giza duintasuna bortxatzea inplikatzeko du”, Caddy Adzuba, KRDKo emakumeen eskubideen aldeko aktibistaren esanetan. Ikusi testigantza osoa honako bideoan:

- **Bideoa:** “Caddy Adzuba, emakumearen eskubideen aldeko aktibistaren testigantza” (Iturria: ALBOAN) [Ikusi](#).
- **Infografia:** “Gatazka mineralak nire mugikorrean?” (Iturria: ALBOAN) [Ikusi](#).



ALBOAN
Jesuitek bultzatutako Fundazioa

-en proiektu bat



TECNOLOGÍA
LIBRE DE
CONFLICTO

www.tecnologia Libre de conflicto.org

Lortzeagatik

Laguntzailea:



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN